



BILBOKO  
ERRALDOIAK ETA  
BURUHANDIAK  
GIGANTES Y  
CABEZUDOS  
DE BILBAO

EUSKAL MUSEOA BILBAO  
MUSEO VASCO  
2019

# BILBOKO ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK GIGANTES Y CABEZUDOS DE BILBAO



**Bilbao 2019**

## ARGITARALDI DIGITALA

Burutzapena, taiuketa eta maketagintza:  
EUSKAL MUSEOA BILBAO

Textuak: Euskal Museoa. Jon Gaminde. Iñaki Irigoien. Marino Montero.

Itzulpenak : Labayru Fundazioa  
Argazkiak :

Azala:  
Erraldoiak, c.1893 © F-003828-2 Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco

Bilboko Udala - Lankidetzta, Bizikidetzta eta Jaiak Saila  
Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco  
Jon Gaminde  
Iñaki Irigoien  
Altadi Fundazioa  
Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa  
Athletic Club

Irudien digitalizazioa: Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco

© Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco 2015 [1º edizioa]  
Bilboko Euskal Museoa da eskubide guztien jabe. Beraz, horren aldezaurreko eta idatzizko baimenik gabe ezin da argitalpen honen osoko zein zatikako aldakirik atera, ez mekanikazko, fotokimikazko, elektronikazko, imanbidezko, eletra-optikazko, argazki-aldakizko ez beste inolako eratako irudigintza-modutan eraso edo zabaldu.

## EDICIÓN DIGITAL

Realización, diseño y maquetación:  
MUSEO VASCO BILBAO

Textos: Museo Vasco. Jon Gaminde. Iñaki Irigoien. Marino Montero.

Traducciones: Labayru Fundazioa  
Fotografías:

Portada:  
Gigantes, c. 1893 © F-003828-2 Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco

Ayuntamiento de Bilbao - Área de Cooperación, Convivencia y Fiestas  
Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco  
Jon Gaminde  
Iñaki Irigoien  
Fundación Altadi  
Museo de la Minería de País Vasco  
Athletic Club

Digitalización de imágenes: Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco

© Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco 2015 [1ª edición]  
Todos los derechos reservados. Esta publicación no puede ser reproducida, ni en todo ni en parte, ni registrada en, o transmitida por, un sistema de reproducción de información, en ninguna forma ni por ningún medio, sea mecánico, fotoquímico, electrónico, magnético, electroóptico, por fotocopia, o cualquier otro, sin el permiso previo por escrito del Museo Vasco de Bilbao.



# AURKIBIDEA

## BILBOKO HIRIBILDUAREN ERRALDOEIN HISTORIA

### ERRALDOIAK

#### ERRALDOIEN 1980KO BELAUNALDIA

Don Terentzio  
Baserritarra Xelebrea eta Etxekoandre  
Ingelesa eta Bilbotar Neskatala  
Olagizona edo Meatzaritza eta Zigarrogilea  
Marinela eta Zamaketaria  
Zumalakarregi jenerala

#### ERRALDOIEN 1988KO BELAUNALDIA

Don Terentzio eta Doña Tomasa  
Baserritarrak  
Ingelesa eta Bilbotar Neskatala  
Olagizona edo Meatzaritza eta Zigarrogilea  
Marinela eta Zamaketaria  
Isabel II eta Zumalakarregi

#### 1998KO ERRALDOI BIKOTE

Pitxitxi eta Lina

## BILBOKO BURUHANDIEN HISTORIA LABURRA

RABIAK, NANOAK, ERRALDOITXOAK, MOMOAK ETA BURU  
HANDIAK

## GARGANTUA

# ÍNDICE

## HISTORIA DE LOS GIGANTES DE LA VILLA DE BILBAO

### LOS GIGANTES

#### GENERACIÓN DE GIGANTES DE 1980

Don Terencio  
El Aldeano xelebre y La Etxekoandre  
El Inglés y la Bilbainita  
El Ferrón o Minero y la Cigarrera  
El Marinero y la Carguera  
El General Zumalacarregui

#### GENERACIÓN DE GIGANTES DE 1988

Don Terencio y Doña Tomasa  
Los Aldeanos  
El Inglés y la Bilbainita  
El Ferrón o Minero y la Cigarrera  
El Marinero y la Carguera  
Isabel II y Zumalacarregui

#### PAREJA DE GIGANTES DE 1998

Pichichi y Lina

## PEQUEÑA HISTORIA DE LOS CABEZUDOS DE LA VILLA

RABIS, ENANOS-AS, GIGANTILLAS, MOMOS Y CABEZUDOS

## GARGANTUA



**BILBOKO ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK**  
**GIGANTES Y CABEZUDOS DE BILBAO**



Generación de de Gigantes y Cabezudos 1939-1945ko Erraldoi eta Buruhandi Belaunaldia © Coleccion J. Gaminde Bilduma

Erraldoiak eta Buruhandiak, Gargantuarekin batera, Bilboko festa-imaginarioko protagonista saihestezin eta historikoak dira. 1978. urtetik, Aste Nagusian urtero berriz jaiotzen den Marijaiarekin batera, ezinbestekoak dira egun Bilboko Udalak dituen erraldoien eta buruhandien bi belaunaldiak. Udan Euskal Museora eramaten dituzte, eta nagusien eta txikien konpainia izaten dute bertan.

Erakundeko klaustroan daudenean, Bilboko Erraldoien giroarekin lotutako jarduera multzo bat egiten da: bultoak dantzarazten, Ondalan Erraldoien Konpartsarekin; gomazko Txiki- Erraldoien elkarretaratzeak; emanaldiak; biribilketak eta saridun lehiaketak, Merkatarien Elkarteekin lankidetzan.

Erraldoiak eta buruhandiak, beren zamaketarien eta musikariekin batera, ezinbestekoak dira festan, zaindu eta nabarmendu beharreko ondare materiala eta immateriala, Bilboren ordezkari baitira, eta, horrenbestez, euskal kulturarena.

Etorri, ezagutu eta gozatu gurekin!

Los Gigantes y Cabezudos junto con el Gargantúa son los ineludibles e históricos protagonistas del imaginario festivo bilbaino. Imprescindibles, conjuntamente con Mari Jaia que, desde 1978, renace en cada edición de Aste Nagusia, las dos generaciones de Gigantes y Cabezudos que posee actualmente el Ayuntamiento de Bilbao se trasladan durante el verano al Museo Vasco donde disfrutan de la compañía de grandes y pequeños.

Su presencia en el claustro de la Institución genera toda una serie de actividades relacionadas con la Gigantomquia bilbaina: aprender a bailar los gigantillos con la Comparsa de Gigantes Ondalan; concentraciones de Txiki-Gigantes de goma; actuaciones, pasacalles y concursos con premios en colaboración con las Asociaciones de Comerciantes.

Los Gigantes y cabezudos junto con sus porteadores y músicos son elementos imprescindibles de la fiesta, un patrimonio material e inmaterial que hay que preservar y poner en valor ya que representan a Bilbao y por extensión a la cultura vasca.

¡Ven a conocerlos y disfruta con nosotros!





**BILBOKO HIRIBILDUAREN ERRALDOIEN HISTORIA**  
**HISTORIA DE LOS GIGANTES DE LA VILLA DE BILBAO**



## Erraldoiak

XVI. mendean hasieran, Corpus Christi eguneko festa hirigune handietara zabaldu zenean –besteak beste, Bilbora-, prozesio erlijiosoari dantzarien maskarada eta zenbait pertsonaia eta irudi gehitu zitzaizkion, hala nola erraldoiak, Tarasca, Nanoak edo Rabiak, azken hauek mozerro eta maskuriek. Orduetik, erraldoien eta buruhandien belaunaldiak bata bestearen ondotik etorri dira Hiribilduan.

Bilbon, haiei buruzko lehen berria 1654ko inbentario batean agertu zen, eta erraldoientzako lau jantzi aipatzen dira. Urte batzuk geroago, haiei buruz deskribapen hau egiten zen: errege mairuak dirudite edo, hobeto esanda, harropuzak, sarrazeno erara jantziak, trakets samar eginda daude kartoizko buru batekin, tunika luzeekin, uhalekin eta alfanjeekin, beste hiri batzuetakoen antzera.

Hurrengo mendean, beste pertsonaia bat sortu zen, Mairuez, beren ezaugarriengatik ezagunak zirenez, gain. Bikotekidearekin jauntxo moduan jantzita zegoen irudi gisa deskribatzen zen. Orduetik, Hiribilduko Erraldoien belaunaldi guztien buru izan da bikote hori, Don Terentzio eta Doña Tomasa izenpean, nahiz eta ez dakigun izen horien jatorria eta arrazoia.

Hemeretzigarren mendeko lehen erdian, segizioan beste bi pertsonaia agertu ziren, Turkiarrak. Don Terentzio eta Doña Tomasa eta Mairuen bikote historikoekin batera, 1852ko belaunaldian Asia, Europa eta Afrika kontinenteak sinbolizatu zituzten. Ondokoan, Amerika eta Ozeania kontinenteetako ordezkariak izan zituzten lagun.

1896ko maiatzaren 2an, zortzi erraldoien eta beste horrenbeste buruhandien belaunaldi berri bat estreinatu zen, Basterraren eta Larrearen tailer eskultorikoan egin. Bilboko Udaletxe berriaren aurrean ageri dira erretratu batean, eta horregatik dakigu nola eginda zeuden. Argazki horretan, Don Terentzio eta Doña Tomasa beteranoak, Arratia Bailarako Baserritar bikote bat, dirudienetz aurreko konpartsa batetik sortutako pertsonaiak, jada ezagunak ziren Turkiarrak, eta azal iluna eta ezaugarri jakin batzuk izan arren, Mairuak esaten zieten bikotea. Azken horiek bizirik diraute jaiimajinarioan, Mairu Erreginari eskainitako abesti bati esker.



Programa de Fiestas de Bilbao **1865 Bilboko Jai programa** © Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco 90/2886



Gigantes y Cabezudos **1893 Erraldoiak eta Buruhandiak** © F-003828-1 Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco



## Los Gigantes

A principios del siglo XVI, al extenderse la fiesta del Corpus Christi a las grandes poblaciones como Bilbao, se incorporan a la tradicional procesión religiosa la mascarada de danzantes y una serie de personajes y figuras como los Gigantes, la Tarasca y los Enanos o Rabís, éstos últimos provistos de caretas y vejigas. Desde entonces se han venido sucediendo generaciones de Gigantes y Cabezudos en la Villa.

La primera noticia de su existencia en Bilbao procede de un inventario de 1654 en el que se mencionan cuatro vestidos para Gigantones, descritos, años más tarde como reyes moros o mejor fantasmones, dichos a lo sarrazeno, compuestos toscamente con una cabeza de cartón, largas túnicas, correones y alfanjes, parecidos a los de otras ciudades.

En la siguiente centuria, además de las Moras reconocibles por sus atributos, surge un personaje descrito como un figurón a lo caballero con su pareja que, presidirán, en adelante, todas las generaciones de Gigantes de la Villa bajo los nombres de Don Terencio y Doña Tomasa, aunque desconocemos el origen y motivo de tales títulos.

En la primera mitad del siglo diecinueve el cortejo incluirá dos nuevos personajes, el Turco y la Turca, que, junto con las históricas parejas de Don Terencio y Doña Tomasa y El Moro y la Mora, simbolizarán en la generación de 1852 los continentes de Asia, Europa y África, a los que acompañaran, en la siguiente, los representantes de América y Oceanía.

El 2 de mayo de 1896 se estrena una nueva generación de ocho gigantes con otros tantos cabezudos construidos en el taller escultórico de Basterra y Larrea. Su composición se conoce por una fotografía en la que aparecen retratados delante del nuevo Ayuntamiento de Bilbao. En ella figuran, los veteranos Don Terencio y Doña Tomasa, una pareja de Aldeanos del Valle de Arratia, personajes que al parecer habían surgido en una comparsa anterior, los ya conocidos Turcos y una pareja que, a pesar de su tez oscura y atributos, eran llamados El Moro y la Mora y, que sobreviven en el imaginario festivo por una canción dedicada a la Reina Mora.



# Erraldoiak

Hogeigarren mendean alferrik galduta, 1934. urtean, Radio Emisora Bilbaínak eskaera herrikoï bat sustatu zuen, erraldioen, buruhandien eta Gargantuaren saga berri bat berriz egiteko, eta Higinio Basterra eskultoreari eskatu zioten modelatzeko eta lantzeko. Segizio berrian, Mairuen bikotearen ordezt, Txinatarren bikote bat jarri zen. Hiribilduari eman zitzaizkion herritarrek erabil eta goza zitzaten, baina 1951n berriz ere bertan behera geratu ziren agintarienezkieria zela-eta. Emisorak, orduan Radio Bilbao deitzen zenak, berriz ere 1962an belaunaldi berri bat harpidetza bidez eraikitzea sustatu zuen. Belaunaldi horretan, Turkiarren eta Txinatarren ordezt, Bilboko kantutegitik ateratako pertsonaiak gehitu ziren: Bilbora etorri zen ingelesa eta Bilbotar neskatila ikusita alde egin nahi izan ez zuena, Itsasadarreko angulaarrantzalea eta Santurtziko sardinasaltzailea.

Horiek desagertu zirenean, 1978an, Jai Batzordeak, Bilboko lehen Aste Nagusiaren antolatzaileak, erraldioen, buruhandien beste belaunaldi baten sorrera sustatu zuen, eta 1962ko Gargantua birgaitzea. Kilikilariak - Cómicos de la Leguako Pedro Goirienari eman zioten lana, eta 1980ko otsailean aurkeztu zen belaunaldi hori. Erraldioen segizioaren kopurua aldatu egin zen: 8 ziren lehen, eta 12, egun. Lau pertsonaia berri sartu ziren, mendearen hasieran Bilbo handitzen lagundu zuten langile-klaseen izenean, eta beste bi Angulaarrantzalea eta Sardinasaltzailearen ordezt, Hiribilduaren eta ondoko elizateen dualtasun liberal-tradizionalista sinbolizatzeko. Hala, Don Terentzio eta Doña Tomasa beterranoei, Baserritarrei (Herritar Xelebrea eta Etxekoandrea gisa karakterizatuak), Ingelesari eta Bilboko neskatxari beste pertsonaia hauek gehitu zitzaizkien: Olagizona edo San Frantziskoko Meatzaria eta Santutxuko Tabako Konpainiako Zigarrogilea, Marinela eta Zamaketaria, bai eta Isabel II.a Erreginak eta Zumalakarregi jeneral karlistak osatutako bikotea ere. 1989ra arte aritu ziren jardunean, eta, urte horretan, egungo belaunaldiak ordezkatu zituen. Bidean galdu ziren Doña Tomasa eta Isabel II.a. Egund, Bilboko Udalak gordeta ditu, eta Toño Valdiviesoren zaintzapean, goza ditzakegu Museoan, neguko kuarteletatik jaisten direnean.



Generación de **1896ko Belaunaldia**.  
© F-002578. Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco



Generación de **1938-45ko Belaunaldia**.  
© Colección J. Gaminde Bilduma.



Generación de **1962o Belaunaldia**.  
© Colección J. Gaminde Bilduma.

# Los Gigantes

Echados a perder, en 1934 Radio Emisora Bilbaína promovió una cuestación popular para la reedición de una nueva saga de Gigantes, Cabezudos y Gargantúa encargando su modelado y talla al escultor Higinio Basterra. En la nueva comitiva la pareja de Moros es sustituida por una de Chinos. Entregados a la Villa para uso y disfrute de su ciudadanía sucumbirán una vez más por la desidia de las autoridades en 1951 y será de nuevo la emisora, ahora denominada Radio Bilbao, quien, en 1962, promoverá la construcción por suscripción popular de una nueva generación en la que los Turcos y los Chinos son sustituidos por personajes extraídos del Cancionero Bilbaíno: El Inglés que vino a Bilbao y al ver la Bilbainita ya no se quiso marchar y el Angulero de la Ría y la Sardiner de Santurce.

Desaparecidos éstos, en 1978, la Comisión de Fiestas, organizadora de la primera Bilbao Aste Nagusia popular promueve la creación de una nueva generación de Gigantes, Cabezudos y la rehabilitación del Gargantua de 1962, encargando el trabajo a Pedro Goiriena de Kilikilariak - Cómicos de la Legua, siendo presentados en febrero de 1980. La comitiva de Gigantes pasa de 8 bultos a los 12 actuales, con la incorporación de cuatro nuevos personajes en representación de las clases trabajadoras que habían contribuido al engrandecimiento del Bilbao de principios del siglo, y dos más, en sustitución de El Angulero y la Sardiner, simbolizando la dualidad liberal-tradizionalista de la Villa y sus vecinas Anteglesias. Así, a los ya veteranos Don Terencio y Doña Tomasa, los Aldeanos (caracterizados como El Aldeano Xelebre y la Etxekoandre) y el Inglés y la Bilbainita se unen el Ferrón o Minero de San Francisco y la Cigarrera de la Compañía de Tabacos de Santutxu, el Marino y la Carguera, además de la pareja formada por la Reina Isabel II y el general carlista Zumalacarregui. Estuvieron en activo hasta 1989, año en que fueron sustituidos por la actual generación, perdiéndose en el camino Doña Tomasa e Isabel II. Hoy guardados por el Ayuntamiento de Bilbao y bajo los cuidados de Toño Valdivieso, los podemos disfrutar en el Museo, cuando bajan de sus cuarteles de invierno.

# Erraldoiak

1988an, Bilboko Udalak erraldoien eta buruhandien beste belaunaldi bat egiteko eskatu zion Jose Ignacio Urbietari (Deba, 1916-99). Jesús Urangaren margozteko eta Vicente Luna artista fallagilearen poliesterrean moldekatzeko, laguntza izan zuen. Urte bat geroago aurkeztu zen, eta hamabi bultoz osatuta zegoen. Gertuko arbasoen pertsonaia berak ziren, eta 1998an, Athletic Club taldearen mendeurrenean, Moskotarrak Konpartsaren eskutik, Rafael Moreno Aranzadi "Pichichi" eta haren emazte Avelina Rodriguez Miguel "Lina" gehitu zitzaizkien. Conchi Maoñok modelatu zituen Loitz Eskulangintza Zeramikoaren Tailerrean (Angela Azcona eta Alex Gonzalez), eta Estibalitz Berriok jantzi zituen.

1. Eusko Jaurlaritzaren (1936-1937) 80. urteurrena ospatzeko, erraldoien familia handitu egin zen, Jose Antonio Agirre Lehendakariaren erraldoiari esker. 2017an Euskal Museoa udako lehen egonaldia pasatzen ari zirenean, Erraldoi bikotekidea bilatzeko galdeketa bat egin zen, eta gehiengo handiz Dolores Ibarruri "La Pasionaria" aukeratu zen.

Gaur egun, Bilboko auzoek beren erraldoiak dituzte: Basurton Beti Jai Alai dantza-taldeko lau erraldoiez gozatzen dute; Deustun, Ondalan Erraldoien Konpar sa dute erraldoiekin, mamutxekin eta erraldoitxoekin; eta Santutxun Mairuek Gaztediko Erraldoiak konpartsa dago. Urtero, Aste Nagusian eta beste ospakizun eta elkarretaratze batzuetan, 1988ko Erraldoiak, aurretik jende artean bidea egiten doazen hamar buruhandiak dituztela, Hiribiduko kaleetan eta plazetan barrera ibiltzen dira, dantzariak dantzatuta, gaiten soinura eta txistulariek lagunduta. Denak Bizkaiko Dantzarien Biltzarreko kide dira.



Generación de **1980ko Belaunaldia**  
© Colección J. Gaminde Bilduma



© Colección J. Gaminde Bilduma, 2000



Erraldoi ONDALAN Konpartsa  
© F/ Euskal Museoa, 2018



Gigante lehendakari Agirre Erraldoia  
© F/ Euskal Museoa Bilbao., 2017

# Los Gigantes

En 1988 el Ayuntamiento de Bilbao encargó la construcción de una nueva generación de Gigantes y Cabezudos a Jose Ignacio Urbietari (Deba 1916-99) que contó con la colaboración de Jesús Uranga y del artista fallero Vicente Luna, para su moldeado en poliéster. Presentada un año más tarde está formada por doce bultos repitiendo los personajes de sus inmediatos antecesores, y a los que, en 1998, año del centenario del Athletic Club, se unirán, de la mano de la Comparsa Moskotarrak, la pareja formada por Rafael Moreno Aranzadi "Pichichi" y su mujer Avelina Rodriguez Miguel "Lina", modelados por Conchi Maoño en el Taller de Artesanía Cerámica Loitz (Angela Azcona y Alex Gonzalez) y vestidos por Estibalitz Berrio.

Con motivo de la celebración del 80 aniversario del 1º Gobierno Vasco (1936- 37), la familia Giganteril vio aumentado su número con el gigante del Lehendakari Jose Antonio Aguirre. Durante su primera estancia veraniega en el Museo Vasco en 2017 se hizo un concurso para buscarle pareja resultando elegida, por amplia mayoría, Dolores Ibarruri "La Pasionaria".

En la actualidad, los barrios de Bilbao cuentan con sus propios Gigantes: Basurto disfruta de los cuatro Gigantes del grupo de danzas Beti Jai Alai; Deusto tiene la Comparsa de Gigantes Ondalan con gigantes, mamutxak y gigantillos y Santutxu la comparsa Mairuek Gaztediko Erraldoiak. Cada año, en Aste Nagusia y en otras celebraciones y concentraciones, los Gigantes de 1988 precedidos por los diez Cabezudos que les van abriendo paso entre el gentío, recorren las calles y plazas de la Villa bailados por dantzaris al son de las gaitas y en compañía de los txistularis, miembros, todos, de Bizkaiko Dantzarien Biltzarra.





**ERRALDOIEN 1980ko BELAUNALDIA**  
**GENERACIÓN DE GIGANTES DE 1980**

# Don Terentzio

Egilea: Cómicos de La Legua- Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

XVIII. mendetik Bilboko erraldoien goi-kortearen buru diren pertsonaiak dira Don Terentzio eta Doña Tomasa bere bikotekidea. Oroimenean ditugun belaunaldi guztietako kide izan dira. Kronikari batzuek korrejidorearen eta haren emaztearen irudia ordezkatzan dutela diote; beste batzuek, berriz, zaldun ilustratua eta haren dama, mantelina eta abanikoaz, abestiak esaten duen bezala



© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# Don Terencio

Autor: Cómicos de La Legua- Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

Don Terencio y su pareja Doña Tomasa son los personajes que desde el siglo XVIII presiden la alta corte giganteril de Bilbao, formando parte de todas las generaciones de las que guardamos memoria. Representan a lo que algunos cronistas atribuyen como la figura del corregidor y su esposa, y otros a la de un caballero ilustrado y su dama, con mantilla y abanico, como reza la canción.



Programa de Fiestas de Bilbao 1934 Bilboko Jai Programa  
© Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco, 90-2215



# Baserritarra Xelebrea eta Etxekoandre

Egilea: Cómicos de La Legua - Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

Baserritar bikotea 1895. urtearen bueltan agertu ziren, Arratiarrak bezala karakterizatuta. Bizkaiko landa-eremuko biztanleak ordezkatzen dituzte, Hiribilduko gizarte eta festa bizitzaren protagonistak bilbotarrekin batera.

1980ko Baserritar bikoteak Etxekoandrearen eta Baserritar xelebrearen arketipoak pertsonifikatzen ditu.



© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# El Aldeano xelebre y La Etxekoandre

Autor: Cómicos de La Legua - Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

La pareja de aldeanos aparece en torno a 1895 caracterizados como Arratianos representando a los pobladores del ámbito rural vizcaino, protagonistas junto con los bilbaínos de la vida social y festiva de la Villa.

La pareja de aldeanos de 1980 personifica los arquetipos de Etxekoandre y Aldeano Xelebre.



Gigantes y Cabezudos **1893 Erraldoiak eta Buruhandiak**  
(xehetasuna detalle) © F-003828-1Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco

# Ingelesa eta bilbotar neskatila

Egilea: Cómicos de La Legua - Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

Bilbora etorritako ingelesa eta Bilbotar neskatila ikustean joan nahi izan ez zuena. Pertsonaia horiek 1962an gehitu ziren Radio Bilbaoren ekimenez, Bilboko kantutegi herrikoiaren abesti klasikoetako baten babesean: "Un inglés vino a Bilbao".

*Etorri zen ingeles bat Bilbora, ibaia eta itsasoa ikustera  
eta ikusirik bilbotar neskatilak, ez zuen joan nahi izan ostera.  
Hala esan zuen:  
nahiago bilbotar neskatila,  
haren aurpegi polita  
eta haren bizia eta gatza,  
ezen ez amerikarra,  
eta haren dirutza*



© Bilboko Udala - Jaietako Sailsa Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# El Inglés y La Bilbainita

Autor: Cómicos de La Legua - Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

El Inglés venido a Bilbao y al ver a La Bilbainita ya no se quiso marchar, fueron los personajes que se incorporan en 1962, por iniciativa de Radio Bilbao al socaire de uno de los temas clásicos del cancionero popular bilbaino: "Un inglés vino a Bilbao".

*Un inglés vino a Bilbao por ver la ría y el mar  
pero al ver las bilbanitas, ya no se quiso marchar.  
y dijo:  
Vale más una bilbainita  
con su cara bonita  
con su gracia y su sal (bis)  
que todas las americanas  
con su inmenso caudal (bis)  
con su inmenso caudal (bis)*



# Olagizona edo Meatzaria eta Zigarrogilea

Egilea: Cómicos de La Legua - Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

Bikote honek San Frantziskoko meatzaria eta Santutxun zegoen, Begoñan, Compañía Arrendataria de Tabacos (1898-1936) konpainiako langileak adierazten ditu. 1978ko Aste Nagusia antolatu zuen lehen Jai Batzordeak proposatuta, XX. mende hasieran Bilbo handitzen lagundu zuten langile-klaseen ordezkari gisa gehitu ziren.



© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# El Ferrón o Minero y la Cigarrera

Autor: Cómicos de La Legua - Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

Pareja que encarna al Minero de San Francisco y a las trabajadoras de la Compañía Arrendataria de Tabacos (1898-1936) de Santutxu, en Begoña. Propuestos por la Comisión de Fiestas organizadora de la primera Aste Nagusia popular de 1978, fueron incluidos como representantes de las clases trabajadoras que contribuyeron al engrandecimiento del Bilbao de principios de siglo XX.



© Euskal Herriko Meatzagintza Museoa  
Museo de la Minería del País Vasco, Gallarta (Bizkaia)

# Marinela eta Zamaketaria

Egilea: Cómicos de La Legua - Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

Nabigazioarekin eta Bilboko merkataritzarekin lotutako langile-klaseak ordezkatzeko bi-kote honek: itsasoak zeharkatzen zituen marinela eta kaietan salgaiak mugitzeaz arduratzen zen zamaketaria. 1978ko Aste Nagusia herrikoia antolatu zuen Jai Batzordeak proposatu zituen, eta euren kidekoekin aurkeztuak izan ziren 1980ko otsailean.



© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# El Marino y la Carguera

Autor: Cómicos de La Legua - Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

Pareja que representa a las clases trabajadoras relacionadas con la navegación y el comercio bilbaino, materializados en el marino que surcaba los mares y las cargueras que se ocupaban del trasiego de mercancías en los muelles. Fueron propuestos por la Comisión de Fiestas organizadora de la primera Aste Nagusia popular de 1978 y presentados con sus congéneres en febrero de 1980.



© F/ Eulalia Abaitua. Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco ABA-88

# Zumalakarregi

Egilea: Cómicos de La Legua - Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

Tomas Zumalakarregi jeneral karlista, Bilboko Setioan, 1835ean, hiltzeraino zauritua eta bere bikotekidea Isabel II.a, Espainiako Erregina 1833tik 1868ra, 1980ko belaunaldian gehitu ziren, Bilboko eta ondoko elizateen dualtasun liberal-karlistaren alegoria gisa.



© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# Zumalacarregui

Autor: Cómicos de La Legua - Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

El general carlista Tomás Zumalacarregui, herido de muerte en el Sitio de Bilbao, en 1835, es incorporado a la generación de 1980, junto con la Reina de España entre 1833 y 1868, Isabel II, como alegoría de la dualidad liberal-carlista de Bilbao y las Anteiglesias vecinas.



Retrato de **Zumalakarregiren erretratua**  
© Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco, 81/1992





**ERRALDOEIN 1988ko BELAUNALDIA**  
**GENERACIÓN DE GIGANTES DE 1988**

# Don Terencio eta Doña Tomasa

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

XVIII. mendetik Bilboko erraldoien goi-kortearen buru diren pertsonaiak. Oroimenean ditugun belaunaldi guztietako kide izan dira. Kronikari batzuek korrejidorearen eta haren emaztearen irudia ordezkatzan dutela diote; beste batzuek, berriz, zaldun ilustratua eta haren dama, mantelina eta abanikoaz, abestiak esaten duen bezala.

2015ean, Beatriz Valdiviesok Doña Tomasaren jantzia berritu zituen.




© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# Don Terencio y Doña Tomasa

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

Pareja de personajes que desde el siglo XVIII presiden la alta corte giganteril de Bilbao, formando parte de todas las generaciones de las que guardamos memoria. Representan a lo que algunos cronistas atribuyen como la figura del corregidor y su esposa, y otros a la de un caballero ilustrado y su dama, con mantilla y abanico, como reza la canción.

En 2015 el vestuario de Doña Tomasa fue renovado por Beatriz Valdivieso.



Programa Fiestas de Bilbao 1966 **Bilboko Jai programa** © Euskal Museoa Bilbao 90/3042

# Baserritarrak

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

Baserritarrak 1895. urtearen bueltan agertu ziren, Arratiarrak bezala karakterizatuta. Bizkaiko landa-eremuko biztanleak ordezkatzeko dituzte, Hiribilduko gizarte- eta festa-bizitzaren protagonistak bilbotarrekin batera. 1980ko bikoteak Etxekoandrearen eta Baserritar xelebreren arketipoak pertsonifikatzen zituen. 1988an, ez zen errepikatu.



© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# El Aldeano y La Aldeana

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

Los aldeanos aparecen en torno a 1895 caracterizados como Arratianos representando a los pobladores del ámbito rural bizkaíno, protagonistas junto con los bilbaínos de la vida social y festiva de la Villa. La pareja de 1980 personifica los arquetipos de Etxekoandre y Aldeano selebre que, en la de 1988, no se repite.



© Colección R. Longa Bilduma. Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco



# Ingelesa eta bilbotar neskatila

Egilea: José Ignacio Urbietta, 1988.

Bilbora etorritako ingelesa eta Bilbotar neskatila ikustean joan nahi izan ez zuena. Pertsonaia horiek 1962an gehitu ziren Radio Bilbaoren ekimenez, Bilboko kantutegi herrikoiaren abesti klasikoetako baten babesean: "Un inglés vino a Bilbao".

*Etorri zen ingeles bat Bilbora, ibaia eta itsasoa ikustera  
eta ikusirik bilbotar neskatilak, ez zuen joan nahi izan ostera.*

*Hala esan zuen:  
nahiago bilbotar neskatila,  
haren aurpegi polita  
eta haren bizia eta gatza,  
ezen ez amerikarra,  
eta haren dirutza*



© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# El Inglés y La Bilbainita

Autor: José Ignacio Urbietta, 1988.

El Inglés venido a Bilbao y al ver a La Bilbainita ya no se quiso marchar, fueron los personajes que se incorporan en 1962, por iniciativa de Radio Bilbao al socaire de uno de los temas clásicos del cancionero popular bilbaino: "Un inglés vino a Bilbao".

*Un inglés vino a Bilbao por ver la ría y el mar  
pero al ver las bilbanitas, ya no se quiso marchar.*

*y dijo:  
Vale más una bilbainita  
con su cara bonita  
con su gracia y su sal (bis)  
que todas las americanas  
con su inmenso caudal (bis)  
con su inmenso caudal (bis).*

# Olagizona edo Meatzaria eta Zigarrogilea

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

Bikote honek San Frantziskoko meatzaria eta Santutxun zegoen, Begoñan, Compañía Arrendataria de Tabacos (1898-1936) konpainiako langileak adierazten ditu. 1978ko Aste Nagusia antolatu zuen Jai Batzordeak proposatuta, XX. mende hasieran Bilbo handitzen lagundu zuten langile-klaseen ordezkari gisa gehitu ziren.



© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# El Ferrón o Minero y la Cigarrera

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

Pareja que encarna al Minero de San Francisco y a las trabajadoras de la Compañía Arrendataria de Tabacos (1898-1936) de Santutxu, en Begoña. Propuestos por la Comisión de Fiestas organizadora de Aste Nagusia 1978, fueron incluidos como representantes de las clases trabajadoras que contribuyeron al engrandecimiento del Bilbao de principios de siglo XX.



© Fundación ALTADI Fundazioa

# Marinela eta Zamaketaria

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

Nabigazioarekin eta Bilboko merkataritzarekin lotutako langile-klaseak ordezkatzeko bi kote honek: itsasoak zeharkatzen zituen marinela eta kaietan salgaiak mugitzeaz arduratzen zen zamaketaria. 1978ko Aste Nagusia herrikoia antolatu zuen Jai Batzordeak proposatu zituen, eta euren kidekoekin aurkeztuak izan ziren 1980ko otsailean. Marinela arrantzale bezela jantzita dago.



© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# El Marino y la Carguera

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

Pareja que representa a las clases trabajadoras relacionadas con la navegación y el comercio bilbaino, materializados en el marino que surcaba los mares y las cargueras que se ocupaban del trasiego de mercancías en los muelles. Fueron propuestos por la Comisión de Fiestas organizadora de la Aste Nagusia popular de 1978 y presentados con sus congéneres en febrero de 1980. El marino está vestido como un pescador de nuestras costas.



© F/ Eulalia Abaitua. Euskal Museoa - Bilbao Museo Vasco ABA-843



# Isabel II eta Zumalakarregi

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

Isabel II.a, Espainiako Erregina 1833tik 1868ra, eta Tomas Zumalakarregi jeneral karlista, Bilboko Setioan, 1835ean, hiltzeraino zauritua, 1980ko belaunaldian gehitu ziren, Bilboko eta ondoko elizateen dualtasun liberal-karlistaren alegoria gisa.

2017an, Beatriz Valdiviesok Isabel II.aren jantziak berritu zituen.



© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# Isabel II y Zumalacarregui

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

Isabel II, Reina de España entre 1833 y 1868, y el general carlista Tomás Zumalacarregui, herido de muerte en el Sitio de Bilbao, en 1835, son incorporados a la generación de 1980 como alegoría de la dualidad liberal-carlista de Bilbao y las Anteglesias vecinas.

En 2017 el vestuario de Isabel II fue renovado por Beatriz Valdivieso



© Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco 81/1975.

A street scene during a festival. In the background, a group of people in various costumes, including a man in a black uniform with a tall hat, a woman in a grey dress, a man in a light blue shirt, a woman in a black and white dress, a man in a yellow jacket, a woman in a white and black dress, a man in a red and white striped shirt, and a woman in a white dress, are standing on a blue stage. In the foreground, a crowd of people is gathered on the street. A man in a white shirt and black shorts is on the left, looking towards the stage. A woman in a patterned dress is on the right, looking towards the stage. In the center, a woman is pushing a red stroller with an orange bag. A child in a green and blue outfit is walking towards the stroller. Another woman is pushing a red stroller on the right. The street is paved with asphalt and has white lines. Buildings with windows and a sign with the word 'KUT' are visible in the background.

**1998ko ERRALDOI BIKOTEA**  
**PAREJA DE GIGANTES DE 1998**

# Pichichi eta Lina

Egilea: Conchi Maoño , Artesanía Cerámica Loitz artisautza tailerrean (Angela Azcona eta Alex Gonzalez)

Rafael Moreno "Pichichi" (1892 – 1922) eta haren emazte Avelina Rodríguez "Lina" pertsonaiak sartu ziren 1998ko segizioan, Aurelio Artetaren "Amodioa sport-zelaietan" margolana inspiraziotzat hartuta. Moskotarrak Konpartsarena izan zen ekimena, Athletic Clubi omenaldia egiteko bere mendeurrenean.



© Bilboko Udala - Jaietako Saila Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# Pichichi y Lina

Autora: Conchi Maoño en el Taller de Artesanía Cerámica Loitz (Angela Azcona y Alex Gonzalez)

Rafael Moreno "Pichichi" (1892 – 1922) y su mujer Avelina Rodríguez "Lina" son los personajes que, inspirándose en el cuadro de Aurelio Arteta 'Idilio en los campos de sport', se incorporan a la comitiva, en 1998, por iniciativa de la Comparsa Moskotarrak en homenaje al Athletic Club de Bilbao, en el año de su centenario.



© Aurelio Arteta, "Idilio en los Campos de Sport", VEGAP, Bilbao 2012.  
Jabetza / Propiedad: Athletic Club. Bilbao





**BILBOKO BURUHANDIEN HISTORIA LABURRA**  
**PEQUEÑA HISTORIA DE LOS CABEZUDOS DE LA VILLA**

## RABIAK, NANOAK, ERRALDOITXOAK, MOMOAK ETA BURUHANDIAK

Erraldoiei bidea egiten dieten pertsonaiak dira, eta mozorroa edo kartoizko buruhandiak daramatzate, puztutako maskuriek batera. Gutxienez XVI. mendetik dago jasota Bilboko erlijiojaietan ibiltzen zirela, eta izen desberdinak izan dituzte itxuraren eta segizioan zuten funtzioaren arabera: momoak, nanoak, erraldoitxoak edo rabiak. Talde osoa izendatzen zen, eta haien itxura eta kopurua aldatuz joan dira, egungo buruhandiak izan arte. Hemeretzigarren mende amaierako argazkietan, zenbait nano belaunaldibereiz daitezke. Nano esaten zitzaientzen, beren jauntxoan, erraldoien, erreplika txikia zirelako.

1895eko belaunaldia lau bikotek osatzen zuten: bilbotarrek, baserritarrek, txinatar mandarinek eta amerindiarrek. Pertsonaia horiek 1896ko ondoko segizioan ere errepikatu ziren, baina bilbotarren eta baserritarren karakterizazioak pixka bat aldatuz. Hogeigarren mendean, buruhandien segizioak berezko nortasuna izan zuen. Tipo ezagunak edo herritarrek ezagut zitzaketen pertsonaiak irudikatzen zituzten. Hala, 1934ko belaunaldian hauek sartu ziren: Señorita Elena, Radio Bilbaoko esataria, Federico Ezquerria ziklista eta Athletic Clubeko Belauste futbolaria. Gerraren ondoren, irineztatua eta Vista Alegreko mandazaina gehitu ziren, eta 1962an, danbolin-jotzailea, toreroa eta Manrey anaiak pailazoak.



Cabezudos **1893 Buruhandiak (xehetasuna detalle)**  
© F-003828-1 Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco



Generación de Cabezudos de **1896 ko Buruhandi Belaunaldia (xehetasuna detalle)**  
© F-002578. Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco



Generación de Cabezudos de **1939-45 ko Buruhandi Belaunaldia (xehetasuna detalle)** © Colección J. Gaminde Bilduma.



Generación de Cabezudos de **1934ko Buruhandi Belaunaldia (xehetasuna detalle)**  
© F-000570 Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco



## RABIS, ENANOS/AS, GIGANTILLAS, MOMOS Y CABEZUDOS

Son los personajes que enmascarados o con grandes cabezas de cartón, y siempre armados de infladas vejigas, abren el paso a los Gigantes. Su presencia en las festividades religiosas de Bilbao está recogida, desde, al menos el siglo XVI, recibiendo distintos nombres según su aspecto y función en el cortejo: momos, enanos, gigantillas o rabís. Nombrados siempre colectivamente, su apariencia y número ha ido variando, hasta los actuales que conocemos como Cabezudos. Por las fotografías de finales del siglo diecinueve podemos distinguir varias generaciones de enanos, como se les denominaba, en razón de que eran una réplica, en pequeño, de sus señores, los gigantes.

La de 1895 estaba integrada por cuatro parejas formada por: bilbainos, aldeanos, chinos mandarines y amerindios, personajes que se repetirán en la siguiente comitiva de 1896 con algún cambio en las caracterizaciones de bilbainos y aldeanos. En el siglo veinte los sequitos de Cabezudos tendrán personalidad propia, representando a tipos populares o personajes reconocibles por la ciudadanía, siendo así que la generación de 1934 incorpora a: la Señorita Elena, locutora de Radio Bilbao, el ciclista Federico Ezquerria y al futbolista Belauste del Athletic Club, a los que se unirán, tras la guerra el enharinado y el mulero de Vista Alegre y, en la de 1962, un tamborilero, un torero y los payasos Hermanos Manrey.

Gaur egungoko Bilboko buruhandien segizioan hamar pertsonaia daude. Kilikilariak – Cómicos de la Legua egindako 1980ko erraldoien eta buruhandien belaunaldiko segizio zabalago batetik bizirik geratu zirenak dira zazpi: Erdi Aroko gizona eta bi emakumeak; apaiza eta bi monagilo (azken horiek, hasiera batean, karakterizazio desberdina zuten) eta baserritarra, batzuek ikazkina esaten diotena, aurpegia belztuta izateagatik. Gainerako hirurak pixkanaka sartu dira, Bilboko konpartsen ekimenez.

2000. urteko Aste Nagusian, Hiribilduaren 700. urteurrena zela-eta, Moskotarrak konpartsak Lehoi zuri-gorria enkargatu zuen, eta 2006an, El Correoren babesaz, Luis Olmoren Don Celes binetapertsonaiaren erreplika sustatu zuen, 60 urte bete baitzituen. Conchi Maoño modelatu zituen biak Loitz Eskulangintza Zeramiko Tailerrean (Angela Azcona eta Alex Gonzalez).

Azkenik, 2012. urtean, Bilboko Konpartsak beste buruhandi bat gehitu zuen, Juan Carlos Eguillorrek 1978. urtean lehen Aste Nagusiko Bilboko Lepoko Urdinerako egin zuen diseinua pertsonifikatzen duena. Bilboko ezkutuaren itxura du, txapela eta oinekin.



1962 © Col. J. Gaminde Bild.



1962 © Col. J. Gaminde Bild.



D. Terencio, 1890



Programa de fiestas de Bilbao  
**1897 Bilboko Jai programa**  
© Euskal Museoa Bilbao  
Museo Vasco 90/2216-2

La comitiva actual de cabezudos de Bilbao consta de diez personajes. Siete de ellos supervivientes de un séquito mucho más amplio perteneciente a la generación de Gigantes y Cabezudos de 1980, realizados por Kilikilariak – Cómicos de la Legua: un hombre y dos mujeres vestidos a la usanza medieval; el diácono con sus dos monaguillos (estos últimos, en origen, con diferente caracterización) y el Aldeano que algunos llaman Carbonero por su cara tiznada. Los tres restantes se han ido incorporando paulatinamente por iniciativa de las comparsas bilbainas.

En Aste Nagusia del año 2000 con motivo del 700 Aniversario de la Villa, la comparsa Moskotarrak encargó el León rojiblanco y en el 2006, promovió, con el patrocinio de El Correo, la réplica del personaje de viñeta Don Celes, de Luis Olmo, al coincidir con su 60 cumpleaños, ambos modelados por Conchi Maoño en el Taller de Artesanía Cerámica Loitz (Angela Azcona y Alex Gonzalez).

Por último, en 2012 Bilboko Konpartsak incorporó un cabezudo que personifica el diseño que Juan Carlos Eguillor realizó en 1978 para la Pañoleta Azul Bilbao de la primera Aste Nagusia y que representa el escudo de Bilbao tocado con txapela y pies para qué os quiero.



Erdi Aroko gizona eta emakumeak  
Tipos medievales (1980)



Apaiza eta monagilo bikotea  
El diácono y sus monaguillos (1980)



Baserritarra edo Ikazkina  
El Aldeano o Carbonero (1980)



Athletic Clubeko lehoia - El León  
del Athletic Club de Bilbao (2003)



Don Celes  
(2003)



Bilboko ezkutua txapeldun eta oinekin  
Escudo de Bilbao tocado con txapela y  
pies para que os quiero (2012)



GARGANTUA  
GARGANTUA





# Gangantua

Bilbon eta bilbotarrentzat, Gargantua bilbainismoaren irudia da –sinbolo totemikoa–, eta horren iniazioa proba da. “Gargantuak irentsia izateko ausardi izatea bilbainismoaren berrespina da”.

Gazte kuadrilla batek, “Pastelería” delakoan biltzen zenak, izan zuen ideia bikain hura: hedonismo ludiko koloso mitiko hori gorpuztea. François Rabelaisek 1535ean argitaratu zuen haren historia. Errenazimentuko humanismoko txapeldun gisa aurkeztu zuen, eta gozatzeko eta ondo pasatzeko beharra aldarrikatzen omen zuen, norberaren askatasuna baliatzeko modu egoki bakar gisa. Ideia aparta izan zen, eta 1854. urteko jaietarako Antonio de Echanizek, etxegile ospetsuak eta meritu oneko Hiribilduko Suhiltzaileen Elkargoko buruak, egin zuen.

Eta hura sortzen asmatu egin zuten, ‘El Nervión’ egunkariaren esanetan: “Hamahiru urtean (Gargantua) atrakzio nagusia izan zen, eta, ondoren, atsedean hartzen utzi zuten, garai hartan piztu ziren matxinadak eta asaldurak ikusita. Azkenean, 1874. urtean, Bilboko Setio tematian, antzinako udaletxean, bere kokalekutik gertu, eroritako bomba karlista bihozgabe batek txiki-txiki eginda utzi zuen. Auzotar guztiek bezala deseroso kokatua zuten leku hartan”.



Programa de fiestas Bilbao **1897 Bilboko Jai programa**  
© Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco N° 90/2216-1



Programa de fiestas de Bilbao **1865 Bilboko Jai programa**  
© Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco 90/2886-4



**Gargantua Arriaga plazan/** en la plaza de Arriaga  
©Eulalia Abaitua. Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco  
ABA-845



# Gangantua

En Bilbao y para los bilbainos Gargantúa es la imagen – símbolo totemico- del propio bilbainismo, del que llega a ser prueba iniciática. “Atreverse a ser devorado por Gargantúa constituye la confirmación de bilbainidad”.

Fue una cuadrilla de jóvenes, agrupados en la llamada “Pastelería”, la que tuvo la sublime inspiración de dar forma corpórea a este mítico coloso del lúdico hedonismo, que, propugnaba la necesidad de gozar y divertirse como única forma lúcida de ejercer la libertad personal, cuya historia publicó François Rabelais en 1535. Genialidad, que para las fiestas de 1854 se encargó de hacer realidad Antonio de Echaniz, distinguido maestro de obras y jefe del benemérito Cuerpo de Bomberos de la Villa.

Y su gestación, fue todo un acierto, según el periódico ‘El Nervión’: “Durante trece años (Gargantúa) fue la gran atracción, retirándose después a descansar ante las revueltas y agitaciones que se encendieron en aquella época. Hasta que al fin, en 1874, una despiadada bomba carlista caída durante el porfiado Sitio de Bilbao en la antigua Casa Consistorial, cerca del lugar en que se hallaba, cual todo vecino, incómodamente alojado, lo hizo volar en menudos fragmentos”.

# Gangantua

1897ko "Abuztuko Jaietan" Gargantua Bilbora itzuli zen, Emiliano de Arriaga behin eta berriro ekinean ibili zelako, eta Pinillos zinegotziak aurkeztutako mozioari esker. Higinio Basterrak landu zuen egurrean bigarren irudi hori, eta begietan eta beheko masailezurrean mugikortasuna gehitu zion, irentsitako haurren pisuak berak artikulatutako orekatze-efektu argi baten bidez. Halaber, bere ezaugarri anatomiko xebreak finkatu zituen, xisto baten gainean mahaira eserita jarrita, "Txorierriko baserritar gogorraz" jantzita txapela gorriarekin. José Arruek bere estanpa koloretsuetan betikotu zuen irudi hori, baina, hala ere, aurrekoaren zori bera izan zuen, ez baitzuen hamarkada bat baino gehiago iraun jardunean.

Radio Emisora Bilbaínak eskatuta, 1934. urtean, Gargantua hirugarrenez itzuli zen Bilbora, eta festetako programetan agertu zen 1950era arte, berriz ere Deustuko biltegi batzuetan utzita bukatu arte. 1939an adabakiak jarri zizkieten, Franco jeneralak ikus zezan, ezagutu nahi zuela eskatu baitzuen. Adabaki horiek gaizkiulertuak ekarri zituzten, jendeak Gargantua berri bat zela pentatu baitzuen.

Laugarren Gargantuak, oraingoan ere Radio Bilbaok sustatuak, berotasun kolektibo handia piztu zuen biztanleriarengan: bizkor ibili ziren hura eta erraldioen eta buruhandien belaunaldi berria sortzea lortzeko harpidetze publiko irekian laguntzen. Askotariko erakundeek, dendek, partikularrek, eta batez ere haurrek, ordainsariatatik duroz duro kendu zuten oboloaren truke jabetza-titulu sinboliko bat jasotzen zuten. Horri esker, Gargantua berria erditu zen. Boluetako tailer batean egin zuten Tomás Martínez Artega eta José Luis Teresa eskultoreek, Pedro Araneguren aholkularitza teknikoarekin.



Gargantua © Periodico "Bilbao" Egunkaria 1912



Programa Fiestas de Bilbao **1934 Bilboko Jai programa** © Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco 90-2214



Gargantua 1962  
© Colección Gaminde, Goirizelaia Bilduma.

# Gangantua

En las 'Fiestas de Agosto' de 1897, Gargantúa vuelve a Bilbao, gracias a la insistencia de Emiliano de Arriaga, y la moción presentada por el concejal Pinillos. Esta segunda encarnación, tallada en madera, por Higinio Basterra, que le añadió la movilidad de los ojos y la mandíbula inferior, mediante un ingenioso efecto de contrabalanceo articulado por el propio peso de los niños engullidos, fijó sus peculiares características anatómicas, presentándole sentado a la mesa sobre un serón (cesto), vestido de "riguroso aldeano chori-erriko" tocado con txapela roja. Una imagen, inmortalizada en las coloristas estampas de José Arrue, que no le salvó de correr idéntica suerte que el de su predecesor, pues apenas si duró poco más de una década en activo.

A instancias de Radio Emisora Bilbaina, en 1934 Gargantúa volvió por tercera vez a Bilbao, en cuyos programas festivos aparece hasta 1950, para acabar igualmente abandonado en unos almacenes de Deusto. El parcheo al que fue sometido en 1939 para que pudiera verlo el General Franco, que había solicitado conocerlo, originó al equívoco de que se trataba de un nuevo Gargantúa.

El cuarto alumbramiento, de nuevo promovido por Radio Bilbao despertó, un enorme entusiasmo colectivo entre la población, que se apresuró a colaborar en la suscripción pública abierta para conseguir su gestación y la de una nueva generación de Gigantes y Cabezudos. Entidades de todo tipo, comercios, particulares y sobre todo niños que, a cambio de su óbolo, detraído duro a duro de sus pagas, recibían un simbólico título de propiedad, hicieron posible su ejecución en un taller en Bolueta, por Tomás Martínez Artega y José Luis Teresa y el asesoramiento técnico de Pedro Aranegui.



